

AMA EUSKADI

Pierre Bordazarre *Etxahun-Iruri*

(Iruri, Zuberoa, 1908 – Paue, Okzitania, 1979)

Euskara batuan

Zerutik [jinik](#) dei [suhar](#) bat, ene [iratzartzera](#), / amari bi koplaren ontzeko bortxatu naiz sinestera, / eta ez naiz segur [herabe](#), ama zuri kantatzera, / hain baitzara andere handi, umila eta alegera.

[Bedatseko](#) lehen beroetan, Orhi delarik berdatzen, / harroturik artzainak dira behetik gora abiatzen, / beha itzazu kantan ari zure lurraren [laudatzen](#), / zuri dizuten amodioa ez da ezabatzen.

Ama, egun xiberotar bat duzu zure zerbitzari, / nahiz zuri beztimenda bat, pare gabeko berezi, / artzain batek eskaintzen dizu, Orhi [bortüan](#) da bizi, / egun oroz gogoan zaitu, oi, gaixo ama Euskadi.

Hitzak eta musika: Etxahun-Iruri.

Hainbaten artean, *Etxahun 1907-1979*, Elkar, 2000.